



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzua
Servicio de Viticultura y Enología

TXOSTENA, ARABAKO ERRIOXAKO MAHASTIEN ETA ARABAKO TXAKOLINAREN EGOERAREN GAINEKOA, 2018/06/25EKOA

Ekain erdira arte, oro har, euri ugari ekarri dute ekaitzek, erregulartasun handirik gabe. Urritik hona metatutako ur superabita % 30 baino gehiago da dagoeneko, eta horrek esan nahi du soberan gaintitu dela kanpaina osoko batez besteko euri kantitatea. Loraldiaren aurreko garaian, egoera horrek kezkatuta izan ditu mahastizainak eta upeltegiak, eta etengabe tratamenduak egin behar izan dituzte mahastiak babestuta izateko eta ondoek ez erasateko, baldintza horiek oso egokiak baitira horretarako. Ekain erdialdetik aurrera iritsi da uda meteorologikoa. Horrek tenperatura epelak eta haize leuna ekarri ditu, eta lurra heze dagoenez, landareak azkar garatu dira eta mahastiak ohiko egutegira moldatu dira.

Arabako Errioxan, une honetan mahastia ia mamitu da beherengo zonetan, eta ia “garbitu” da gorengo zonetan, eta fenologiaren aldetik horrek esan nahi du J egoeran dagoela. Esan daiteke normaltasunez mamitzen ari dela edo baldintza onetan mamitu dela. Oro har, ez da “lerradurarik” gertatu, zeinek uzta murriztu baitzezaketen. Printzipioz, eta baldintzak mantentzen badira, uzta oparoa izango da. Hostaila oso ugaria da eta, beraz, aurten kimu berriak kimatzen eta puntak mozten lan handia egin beharko da, mahatsondoak hostotsu baitatoz.

Izurriteei dagokienez, mahats mordoaren sitsak eta piralak eragin txikia dute. Eltxo berdearen eta armiarma horiaren kalteen zantzuak ikusi dira, baina oraingoz badirudi dauden baldintzak ez direla egokiak horien izurriterik sortzeko.

Gaixotasunei dagokienez, gorrin larbatuaren agerraldi jakin batzuk gertatu dira mahats mordoetan, baina ez dute ondorio larririk eragin. Horixe bera gertatu da zurinarekin ere; oso eragin txikia izan du, nahiz eta kanpaina nola zetorren ikusita arriskua handia zen. Goraipatzekoa da mahastizainak arlo horretan egindako lana, zurina eta gorrina biak ere kontrolpean izatea lortu duelako.

Orain arte, batez beste 3 edo 4 tratamendu egin dira, eta, sufre aplikazioak kontuan hartuta, baliteke 8 edo 9 egitera iristea erraz samar, urte arrunt batean baino askoz gehiago. Mahatsondoak oso hostotsu datozenez, sufrea eta lurrun efektuko zurinaren kontrakoak erabili beharko dira, landare osora iritsi ahal izateko. Gorrinak erasotzeko arriskurik handieneko aldia igaro da dagoeneko, baina adi egon beharko da ekaitzen bat lehertuz gero, geroago ere izango delako kutsatzeko arriskua. Unean uneko orban berrienak zaindu eta, beraz, eragindako mahastiak tratatu beharko dira; gainerakoetan, ezereen zantzurik ikusten ez denetan, mahatsak ilar neurria hartu arte, eragin sistemikodun produktuak erabili beharko dira, arrisku handieneko aldian mahastiak babestuta egongo direla ziurtatzeko.

Mahasti batzuetan klorosi ferrikoaren zantzuak ikusi dira, bai eta potasio eta boro falta goiztiarraren sintomak ere. Kasu bakoitzean, produktu egokiak bota beharko dira.

Arabako Txakolinaren eremuan, udaberri amaiera eta uda hasiera bereziki zaila izaten ari da. Hasieran, ez da ondo mamitu; orain, euririk egin ez duenez, badirudi hobeto ari dela garatzen. Lurrean eta giroan dagoen hezetasun handiaren ondorioz, gorrina agertu da lurzati askotan, bai mahats mordoetan bai hostoetan. Tratamenduak egiten jarraitu behar da arriskuak dirauen bitartean. Zurinari dagokionez, deitura honetan arriskua txikiagoa den arren Errioxa deituran baino, hemen ere adi egon beharko da.

Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzua